

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

KULTURA ETA KIROL SAILA

157/2021 Foru Agindua, maiatzaren 31koa Arabako Arabako Kirol Federazio eta Kirol Federazioen Elkartentzako dirulaguntzen deialdia onartzea, 2021. urtean euskara sustatzeko

Kultura eta Kirol sailak 2021. urtean Arabako Kirol Federazio eta Arabako Kirol Federazioen bidez euskara sustatzeko jarduerak egitea diruz laguntzea aurreikusten du.

Horretarako, euskararen erabilera sustatzeko garatze aldera bideratutako jarduerak bete beharreko esparru arautzaile espezifikoak ezarri behar da, Sailak dirulaguntza egokiak eman ditzan.

Arabako Lurralde Historikoko 2021eko aurrekontua betearazteari buruzko urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arauak 70.2.01.77.01.481.00.11.8 "Klub eta Federazioak. Hizkuntza Normalizazioa" 70-0.089 lerroa izeneko aurrekontu-saila du, 5.000,00 euro dituen esleiturik.

Arabako Foru Aldundiak, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenbakia) eta haren ondorengo aldaketan bidez, oinarri orokor arautzaileak onartu zituen, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan norgehiagoka-araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatzeko.

Kirol zerbitzuko buruak egindako txostena ikusita.

Horren ondorioz, dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Arabako Arabako Kirol Federazio eta Kirol Federazioen Elkartentzako dirulaguntzen deialdia, 2021. urtean euskara sustatzeko. Horren oinarriak eranskin gisa erantsi dira.

Bigarrena. Deialdi honek bost mila euroko (5.000,00 euro) gehieneko zuzkidura izango du, ondorengoetan adierazitakoaren arabera arautuko da: Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.), eta haren ondorengo aldaketak aurreikusitakoa, Kultura eta Kirol sailaren eskumenen esparruan norgehiagoka-araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatu beharreko oinarri arautzaile orokorrak; eta agindu honen eranskinean jasotzen diren oinarri espezifikoak.

Hirugarrena. Gastu hori 70.2.01.77.01.481.00.11.8 "Klubak eta federazioak. Hizkuntza Normalizazioa" 70-0.089 ildoan, Arabako Foru Aldundiak 2021eko ekitaldirako duen gastu-aurrekontukoa, gehienez 5.000,00 eurokoa, erreferentzia zenbaki laburra: 105-1876.

Laugarrena. Organo eskudunak, Kirol Zerbitzuaren proposamena ikusita, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehienezko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

Bostgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42. eta 43. artikuluetan aurreikusitako moduan banaka jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOean argitaratzea.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Dena dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dazioke ebazpena eman

duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioke bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 1a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

ERANSKINA

ARABAKO KIROL FEDERAZIOETARAKO ETA KIROL FEDERAZIOEN ELKARTEETARAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA, 2021EAN EUSKARA SUSTATZEKO

1. artikulua. Xedea, helburua eta emateko prozedura

Deialdiaren xedea da laguntzak ematea Arabako kirol federazioei eta Arabako Kirol Federazioen Elkarteari, beren erakundeetako soldatapeko langileek euskara ikas dezaten sustatzeko. Prestakuntza ekintzak 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 23ra bitartean egingo dira.

Dirulaguntza deialdi hau norgehiagoka bidez egingo da.

Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak eta haren ondoko aldaketek arautuko dute.

2. artikulua. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezingo du inola ere gainditu helburu horretarako jarri den zenbatekoa, hau da, 5.000,00 euro, eta Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuko "Taldea eta federazioentzako dirulaguntza: hizkuntza normalizazioa" izeneko 70.2.01.77.01.4810011.8 partidaren kontura ordainduko da.

3. artikulua. Erakunde onuradunak eta kanpoan utzitakoak

Erakunde onuradun izango dira:

- Arabako kirol federazioak.
- Kirol federazioen elkarteak, egoitza soziala Araban badute.

Kanpoan utziko dira Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan eta haren osteko aldaketetan jasotzen diren egoeretan dauden erakundeak. Dekretu horrek onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak.

4. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak

Diruz lagundu ahal izango da oinarri hauen 3. artikuluan zerrendatutako erakunde onuraduntan kontratatuta dauden langileek 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 23ra HABEk homologatutako zentro batean egindako euskara ikastaroen matrikulek eragindako gastua. Diruz laguntzeko gastutzat matrikula bakarra onartuko da erakunde onuradun bakoitzeko; hala ere, 2.000 lizentzia edo gehiago dituzten erakundeen kasuan gehienez hiru matrikula onartuko dira erakundeko.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dirulaguntza lortzeari edo justifikatzeari dagokionez, gastu hauek:

- a) 100 ordutik beherako ikastaroak.
- b) Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

Eskaerak Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari zuzenduko zaizkio eta leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.
- Gasteiz, Guardia eta Laudioko Ogasunaren bulegoen erregistroan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Nolanahi ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 14.2 artikuluan xedatutakoa betez, betiere honako hauek behartuta egongo dira nahitaez telematikoki aurkeztera, egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen berriarazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/arabako-kirol-federazioetarako-eta-kirol-federazioen-elkarteetarako-dirulaguntza-deialdia-euskara-sustatzeko>) pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko entitateak; diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, bai eta jarduera hori dela eta egin behar dituzten izapideetarako ere; eta Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkari direnak.

Horretarako, aldez aurretik, erakunde eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://web.araba.eus/eu/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>. Nolanahi ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duena aplikatuko da.

Eskaerak osorik bete ezean edo deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta agiriak aurkezteko hamar egun balioduneko epean. Era berean, jakinaraziko zaio horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, Kultura eta Kirol Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

Kultura eta Kirol Sailak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean izateko baldintzak betetzen dituela, salbu eta erakunde horrek horren aurka egiten badu; kasu horretan, egitate hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatua, azken xedapenetatik hamabigarrenean).

6. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko hamabost egun balioduneko epea egongo da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epea azken egun balioduneko amaituko da 13:00etan.

7. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua izango da prozeduraren instrukziorako organo eskuduna.

2. Atal honetan esleituko den dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoak ez ditu gairidituko horretarako artikulua honen 3. eta 4. apartatuetan ezarritako ehunekoak eta, nolanahi ere, ez ditu gairidituko zenbateko hauek:

- a. 850,00 euro, 2.000 lizentziatik behera dituen kirol federazio bakoitzeko.
- b. 2.550,00 euro, 2.000 lizentzia edo gehiago dituen kirol federazio bakoitzeko.
- c. 850,00 euro, kirol federazioen elkarte bakoitzeko.

3. Laguntzaren zenbatekoa euskara ikastaroetako matrikulen kostuaren ehuneko 80 izango da. Muga 850,00 euro izango da erakunde onuradun bakoitzeko, salbu eta 2.000 lizentzia edo gehiago dituzten erakundeentzat; horientzat dirulaguntza muga 2.550,00 euro izango da.

4. Emaizten kopurua deialdiaren diru zuzkidura baino handiagoa bada, jaso beharreko dirulaguntzak proportzio berean hainbanatuko dira, dirulaguntzak deialdiko aurrekontu baliabideetara egokitzeko.

8. artikulua. Ebazpena

1. Eskaerak balioespen batzorde batek aztertuko ditu. Balioespen batzorde horren buru Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta Kirol Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat. Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua izango da idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera aztertu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du, eta ebaluazioaren emaitza zehaztuko du han.

2. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balioespen batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntza emateko ebazpenak jaso beharko du erakunde eskatzaileetako zeini ematen zaion dirulaguntza eta gainerako eskaeren berriazko ezespina. Ebazpenean adierazi beharko da dirulaguntza zenbatekoa den, nola ordainduko den, zer agiri aurkeztu behar den eta zein baldintzarekin ematen den dirulaguntza.

5. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

6. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin.

9. artikulua. Esleitutako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea

1. Agiri hauek aurkeztutakoan ordainduko da dirulaguntza. Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da, nahitaez, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide espezifikoen bidez:

a) HABEk homologatutako zentroak egindako fakturak, egindako ikastaroen matrikulen gastuei dagozkienak.

b) Matrikulak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak, matrikulen zenbatekoa 500 eurotik gorakoa bada.

c) Euskara ikastaroa egin duen pertsonaren lan kontratuaren kopia.

d) Ikastaroaren ebaluazio ziurtagiria, aipatutako zentroak egina.

2. Aipatutako justifikazioa aurkezteko epea 2021eko abenduaren 28an amaituko da.

Justifikazio hori Kirol Zerbitzuaren buruak adostuko du.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zenbakia.

Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak, PFEZaren (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokienez.

Diruz lagun daitezkeen 500 eurotik gorako gastuen banku ordainagiriak. Honako hauek onartuko dira:

- a) Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertu behar dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztu beharko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
- b) Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertu beharko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- c) Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.
- d) Kontu korronteen libreten kopia konpulsatua, mugimenduak ageri dituenak.
- e) Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
- f) Jatorrizko erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza guneeetakoak, autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar) edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2021erako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa, edo haren kontrabalioa atzerriko dirutan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

3. Balio erantsiaren gaineko zerga eta zeharkako beste zerga batzuk diruz lagundu ahal izango dira soilik berreskuratu edo konpentsatu ezin badira.

10. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak dira estatuko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa berarentzat emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, diruz lagundutako programaren edo programen kostua gainditzen ez badu.

Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio organo esleitzaileari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duenez edo eskuratzeko eskaerarik egin duenez, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik. Horien guztien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta, nolana ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

11. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

Dirulaguntza hauen onuradun diren erakundeen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta kontrol organo eskudunek finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeke egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

b) Zabalkunde egokia ematea diruz lagundutako prestakuntza ekintzek finantzaketa publikoa jaso izanari.

c) Herritarrei erakundearen jardueraren berri emateko liburuxka, kartel eta bestelako euskarrietan bi hizkuntza ofizialak erabil daitezen sustatzea. Era berean, euskararen erabilera ezartzen joango dira beren zerbitzuen erabiltzaileekiko ahozko eta idatzizko komunikazioetan.

12. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, <https://web.araba.eus/eu> web orri korporatiboaren bidez ere zabalduko da.